

# BESTELAKO XEDAPENAK

## JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA

### 870

*EBAZPENA, 2025eko otsailaren 14koa, Justizia eta Giza Eskubideen Saileko Zerbitzuen zuzendariarena, Zumarragako Ibaiondo Ikastetxearen Zuzendaritzaren esku uzten duena zenbait gairen gaineko eskumenak egikaritzea.*

Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 326/2024 Dekretuak 8.1.b) eta c) artikuluen letretan ezartzen duenez, Zerbitzu Zuzendaritzari dagokio sailaren kudeaketa ekonomikoa eta aurrekontua exekutatzeko faseak izapidetzea, eta sailaren 1.000.000 eurotik beherako gastuak baimentzea.

Era berean, aipatutako dekretuak ezartzen du eginkizun hauek dituela Zerbitzu Zuzendaritzak: prestakuntza- eta hobekuntza-planak egitea langileentzat, Justizia Administrazioiko eta espetxeetako langileentzat izan ezik, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 19. artikulua eta indarrean dagoen gainerako araudiak sailari esleitzen dizkion eskumenak baliatuz, eta alde batera utzi gabe Funtzio Publikoko Zuzendaritzari eta Administrazio Publikoaren Euskal Institutuari dagozkien eskumenak; eta langile-premiei buruz sailak egindako aurreikuspenak ebaluatzea, eta saileko plantilla eta lanpostu-zerrendak prestatzeko proposamenak egitea, Justizia Administrazioiko langileei eta espetxeetako langileei dagozkienak izan ezik (8.1.e) eta f) artikulua).

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 20.1.d) artikuluekin bat etorriz, Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren eskumena da adingabe arau-hausleen arloko eskumenak baliatzea, betiere adingabearen babesean eskumena duten gainerako organo eta administrazioekin lankidetzan. Ildo horretatik, Justizia Zuzendaritzari dagokio gazte-justiziaren arloko jarduerak diseinatzea, planifikatzea, antolatzea eta ebaluatzea, Jaurlaritzako sailen lana koordinatuz; hori guztia Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 326/2024 Dekretuaren 12.f) artikuluen arabera.

Zumarragako Ibaiondo Ikastetxea askatasunaz gabetzeko neurriak betearazteko hezkuntza-zentro bat da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan askatasunaz gabetzeko neurriak betearazteko hezkuntza-zentroei buruzko apirilaren 21eko 80/2009 Dekretuan araututakoen artean dago.

Aipatutako arauaren 28. artikuluen arabera, honako hauek dira, besteak beste, Zuzendaritzaren eginkizunak: Gazte Justiziako Zerbitzuak ezarritako jarraibideak zuzentzea, koordinatzea, kontrolatzea eta ikuskatzea; zentroaren barne-funtzionamenduari eta -antolamenduari buruzko zerbitzu-aginduak ematea, Gazte Justiziako Zerbitzuari dagozkion ahalmenak alde batera utzi gabe; zentroaren baliabide ekonomikoak administratzea eta kudeatzea, indarrean dagoen legeriarekin eta Gazte Justiziako Zerbitzuaren jarraibideekin bat etorriz, eta zentroaren premia ekonomikoak eta bestelakoak aztertzea, behar bezala funtzionatu dezan.

Zentroaren arduradunak hartuko du bere gain Zentroaren Zuzendaritza (lanpostua: Gizarte Gaietako arduraduna; kodea: 510261/3), hala ezarrita baitago Euskal Autonomia Erkidegoan askatasunaz gabetzeko neurriak betearazteko hezkuntza-zentroei buruzko apirilaren 21eko 80/2009 Dekretuaren 28. artikuluan.

Kontuan hartuta Zerbitzu Zuzendaritzak duen lan-karga, une honetan komenigarritzat jotzen da ebazpen honen xedapen-zatian zerrendatzen diren eskumenen erabilera eskuordetzea.

Lehenago adierazitakoaren arabera, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 20ko 40/2015 Legearen 9. artikuluan eta Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 25. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Zumarragako Ibaiondo Ikastetxeko Zuzendaritzaren esku uztea, zentro horren eremuan, honako eskumen hauek:

a) Bere esparruan beharrezkoak diren funtzionamendu-gastuak onartzea, indarrean dagoen funts aurreratuen araubidearen eremuan.

b) Langile lan-kontratudunei urteko oporrak eta jaiegunak konpentsatzeko egunak ematea eta banatzea.

c) Ordaindutako baimenak ematea langile lan-kontratudunei, aplikatu beharreko araudian ezarritako denbora eta arrazoiengatik.

Bigarrena.– Eskuordetza honek ez die kalterik egingo Zerbitzu Zuzendaritzak, organo eskuduna den aldetik, gaiari buruz ezartzen dituen jarraibide eta irizpideei. Eskuordetza bidez ematen diren ebazpenek zorrotz beteko dituzte irizpide horiek. Gainera, eskuordetutako eskumenak baliatzean ematen diren egintzen zerrenda aldizka bidaltzeko agindu ahal izango die organo eskuordetzaileak eskuordetza ezarrita duen organoari.

Hirugarrena.– Eskuordetza honen bidez emandako ebazpen guztietan, berariaz aipatuko da horrela eman direla, eta organo eskuordetzaileak emandakotzat joko dira.

Laugarrena.– Ebazpen honetan aipatzen den eskumen-eskuordetza urriaren 1eko 40/2015 Legearen 9.2 artikuluan eta Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 25.8 artikuluan adierazitako mugen mende dago.

Bosgarrena.– Zerbitzuen zuzendariak edozein unetan erreboka dezake ebazpen honetan aipatzen den eskumen-eskuordetza. Errebokatzeak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Seigarrena.– Zerbitzuen zuzendariak beregana ditzake ebazpen honek aipatzen duen eskuordetzan jasotako edozein gairen ezagutza eta ebazpena, hartara eragotzi gabe eskuordetzak iraun ahal izatea, espresuki aldatzen edo errebokatzen ez den bitartean.

Zazpigarrena.– Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 25. artikuluari jarraituz, eskumenak eskuordetzeak eta errebokatzeak modu iraunkorrean eta eskuragarrian agertu beharko dira sail eta organo eskuordetzailearen webgunean, bai eta sail edo organo eskuordetuarenean ere.

Zortzigarrena.– Ebazpen honek ondorioak izango ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik.

Bederatzigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Justizia eta Giza Eskubideen sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 14a.

Zerbitzuen zuzendaria,  
OSCAR TROBO TRASAHEDO.